

soiluzioak

2023

Euskadiko Lurzorua Babesteko Kongresua
Congreso de Protección del Suelo de Euskadi
Basque Country Soil Protection Congress

ONDORIOAK

*Euskadiko Lurzorua babesteko 2030erako estrategia
zabaltzeko ekarpenak*

ZENBAIT TITULAR

- ✓ **HANDIZALEAK izan behar dugu luraren babesean.** Deskutsatu bai, baina baita ere birsortu eta babestu. Bidearen hasieran gaude oraindik.
- ✓ **Lurra, EZINBESTEKOA GJH gehienak lortzeko**
 - ✓ **15. GJH** Basoen kudeaketa jasangarria, basamortutzearen aurka borrokatzea, **lurren degradazio gelditu eta itzularaztea** eta biodibertsitatearen galera gelditzea.
- ✓ **Biodibertsitatearen % 60 lurtean dago.** Lurreko biodibertsitatea benetako kutxa beltza da oraindik ere.
- ✓ **Europako lurzoruen % 60k degradazio prozesuak sufritzen ditu**
- ✓ **Kudeaketa jasangarriarekin bakarrik geratu daitezke degradazioa.** Lurzorua jada ez da euskarria, baizik eta lur-planetaren biziraupenerako funtsezko elementua.
- ✓ **Lurzorua EZ okupatzea eta hutsik dauden lurak berrerabiltzea** ezinbestekoa da gurea bezalako herrialde txiki batean.
- ✓ **Lurzoruek ezinbestekoak izango dira hurrengo hamarkadetako arintze prozesuetan.** Lurzoruek mekanismoak ematen dizkigute karbonoaren zikloan esku hartzeko (bahitzea), baina klima aldaketaren efektuen aurrean egokitzeko baita ere.
- ✓ **Aurrera egitea, Europa ere aurrera doala aprobetxatuz**

ZENBAIT TITULAR

EZBERDIN BEHATU, PENTSATU ETA JARDUTEA, hauek lortzeko:

- ✓ **Datuetan** oinarritutako politikak diseinatzeko. Europak estandar eta adierazle komunak definitu beharko ditu.
- ✓ **Araudia** onestea lurzorua babesten laguntzeko.
- ✓ **Askotariko agenteekin** lan egitea eta **gobernantza** sistemak hobetzea. Politika holistikoak, ez sektorialak.
- ✓ Erantzukizun eta onurak partekatzea, **agente** guztiak inplikatzeko. Batera sortzea. Epe luzean pentsatzea. Erantzutea, mailakatzea.
- ✓ Ingurumen politikak **eta plangintza espaziala/lurraldekoa konektatzea**.
- ✓ Paradigma aldatzea: **lurzoruek** gizarteari eta lur-planetari ematen dieten **balioa** erdigunean jartzea. Balio ekonomikoaz gain, soziala eta ingurumenekoa zenbatu eta ikusaraztea.
- ✓ **One Health** ikuspegia txertatzea (animalien, ingurumenaren, gizakien, lurzoruen eta abarren osasuna).
- ✓ Ez ahaztea **hondeaketa** lurrak ez direla hondakinak, baizik eta material oso baliotsua.
- ✓ Administrazioen eta herritarren artean lurzoruaren balioaren **sentsibilizazioa eta hedapena** indartzea.
- ✓ **Genero ikuspegia** txertatzea lurzoruaren kudeaketa jasangarrian.

1. mahaia. Lurzoruaren eginkizuna “Baserritik mahaira” estrategian

- *Nekazaritza Bateratuko Politika* lurzorua babesteko tresna gisa. Pilar Santamaría. HAZI fundazioa
- *Ura eta lurzoruak erabiltzea nekazaritzan.* Iñigo Virto. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- *Nekazaritzan ongarrien erabilera arrazionalizatzea.* Ana Aizpurua. NEIKER
- *Pestizidak zentzuz erabiltzea nekazaritza jasangarriaren esparruan.* Ane Zabalza. Nafarroako Unibertsitate Publikoa



LABURPENA

- Lurzoruaren zeregina ezinbestekoa da *Baserritik mahaira estrategian* eta Nekazaritzaren Politika Bateratuan. Lehen sektoreak asko du esateko.
- Euskadin **lurraldearen % 80** sektore horrek kudeatzen du. Gure luraren osasuna asko baldintzatzen dute bertan egiten diren jarduerak.
- **Lurzoruen eta uraren** arteko lotura zuzena eta indartsua kalitateari eta kantitateari dagokienez.
- Helburuak:
 - **Ongarrien** erabilera % 20 gutxitzea
 - **Fitosanitarioen** erabilera % 50 gutxitzea

IDEIA GAKOAK

- Karbono gutxiko nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa
- **Ura babestea:** lurralde osoa kudeatzea
- **Ongarri gutxiago** erabiltzea
 - Teknologia zehatza
 - Urrutitik detektatzeko teknologiak
- Fitosanitario gutxiago erabiltzea
 - Izurriteak oso-osorik kudeatzea
 - Materia aktibo jasangarri berriak bilatzea

Bilbao - October 2023

2. mahaia. Lurzorua babesteko 2030erako estrategia eta monitorizazio eta erresilientziarako zuzentzarau proposamena Nola lortu lurzoru osasuntsuak 2050ean?



IDEIA GAKOAK

- Estatu kideen artean irizpideakbateratzea: horixe da *Lurzorua babesteko Europako strategiaren* erronka handi bat.
- **Lurzoru osasuntsuak** izan behar ditugu, baina...zenbaterainoko osasuntsua da osasuntsua?
- Lurzorua **okupatu** eta **artifizializatzea**; gainditzeke dugun ikasgai garrantzitsua.
- **Hondeatutako lurren** zirkulartasuna, nola bihurtu arazo bat aukera? Zuzentzarau proposamenak aukera hori aprobetxatu beharko luke.

3. mahai. Lurzoruaren okupazioaren kudeaketa lurralde plangintzaren bitartez

- *Lurraldea antolatzea (zonifikatzea) ondare naturala kontserbatzeko.*
Marta Rozas. Eusko Jaurlaritza
- *Lurzoruaren okupazioaren kudeaketa lurralde plangintzaren bitartez. EUSKAL HIRIAN landa inguru bizia izan nahi dugu?*
Asier Arrese. HAZI
- *Lurzoruaren babesa Lurralde Antolamendurako Zuzentzaruetan (LAG).*
Leire Urcola. Eusko Jaurlaritza
- *Lurzoruaren okupazioaren kudeaketa lurralde plangintzaren bitartez.*
Manuel Borobio. ABT-Taller de Estudios



LABURPENA

- **Lurralde Antolamendurako Zuzentarueta (LAG)** lurzorua babestu beharreko oinarritzko baliabidea da, eta mehatxuak kontrolatu eta bere potentzialtasunak aprobetxatu behar dira, kaltetu gabe.
- **Landa garapenaren ikuspegitik;** desagertzen ari den landa ingurua berpiztu behar dugu.
- **Ondare naturaletik;** lurzorua baliabide EZ berriztagarria da, eta babestea lehentasunezkoa da.
- **Ikuspegi sistemikotik;** herritarren eta gizartearen ongizaterako, beharrezkoa da ikuspegi osoa aplikatzea, herritarren beharrak (bizi kalitatea) eta administrazioaren ekintza (baliabideen kudeaketa) zehazten dituenak.

IDEIA GAKOAK

- **Lurralde Antolamendurako Zuzentaruak (LAG):**
 - hiri eraberritzea lehenestea
 - Okupazio berriak ekiditea
 - Nekazaritza lurzorua mantentzea
 - Azpiegitura berdea sustatzea lurralde plangintzarako forma berri gisa, hala, askotariko ikuspegiak hartu eta bateratzeko.
- **Landa garapenetik;** inguru horietan diskriminazio positiboko politika osoak aplikatzea, "kontserbatzeko erabili beharra dago".
- **Ondare naturaletik;** zonifikazio prozesuak ezinbestekoak dira lurzorua kontserbatzeko.
- **Ikuspegi sistemikotik;**
 - Eredu bideragarria, ingurumen efizientziakoa eta gizarte kohesioakoa.
 - Plangintzak herritarren osasuna hobetu behar du eta oztoporik ez du jarri behar.

4. mahai. Lurzorua, aliatua klima aldaketarekiko arintzean eta egokitzapenean

- *SoilSkin.*
Nagore García. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
- *Urban Klima 2050.* Malake Muñoz. Ihobe.
- *NAdapta.* Rodrigo Antón Sobejano. Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- *Smart city Valladolid.*
Alicia Villazan Cabero. Valladolideko Udala.
- *Life eCOadapt50. Ekintza estrategikoaren baterako sorkuntza lurraldeak klima aldaketara egokitzeko eta tokiko ekonomiak.*
Núria Parpal. Bartzelonako Aldundia
- *Europako Batzordea.* Ion Codescu



LABURPENA

- Lurzoruak (karbono hustubide nagusiak dira eta arintzean laguntzen dute) ezinbestekoak dira egokitzapenean.
- Lurzoruaren biodibertsitatea oso garrantzitsua da orokorrean, baina klima aldaketarekiko oso zaurgarria da.
- Lurzoruaren kalitatea hobetzea egokitzapen jarduketan baterako onuretako bat da.
- Euskadik bateratasuna du klima helburuen eta lurzoru babesteko artean, besteak beste Urban Klima 2050 ekimenarekin.
- Europa esperientziak metatzen ari da klima aldaketan eta lurzoruetan; hiri espazioak birnaturalizatzea, nekazaritzaren egokitzapen estrategiak, etab.
- Lurzorua deskarbonizaziorako palanka bat da, eta deskarbonizazioa palanka da baita ere lurzoru babesteko.

IDEIA GAKOAK

- Lurzorua erabiltzeko estrategiak ezinbestekoak dira **nekazaritza ekosistemak** klima aldaketara egokitzea optimizatzeko.
- **Hirietako lurzoru**a oinarritzko substratua da naturan eta klima aldaketarekiko hiri egokitzapenean oinarritutako irtenbideak ezartzeko.
- Beharrezkoa da **herritarrei eta ekonomia sektoreei** helaraztea garrantzitsua dela lurzoruaren biodibertsitatea klima aldaketara egokitzeko. Aztertzeko bide interesgarriak:
 - Living lab-ak
 - Hiriko zientzia programak

5. mahaia. Hutsik dauden lurzoruak erabiltzea Tresna arrakastatsuak

- *Hutsik dauden lurzoruak erabiltzea: oinarritzko ekintza lerroa Euskadiko lurzorua babesteko estrategian.* Ana Alzola. Ihobe
- *Lurrak berrerabiltzea jarduera ekonomikoak garatzeko. Administrazio ereduak.* Iker Bergaretxe. SPRILUR
- *Eskoziako lurzoru hutsak berrerabiltzeko estrategiak.* David Stewart. Scottish Land Commission
- *Lurzoru hutsak berrerabiltzeko estrategiak Austria-Brownfield Dialogue-n.* Gundula Prokop. Ingurumeneko Austriako Agentzia
- *Berreskuratze naturala eta lurraldearen kontserbazioa.* Javier Vázquez. Ekologistak Martxan



LABURPENA

- Euskadi lurzorua babesteko politikak eta lurzoru hutsak berrerabiltzekoa garatzen ari da, Europarekiko paraleloan.
- Europan, lurzoru artifizialaren batez besteko ehunekoak 4,2koa da, eta Euskadin 6,8koa (ez dira oso-osorik konparagarriak, kalkulatzeko hainbat metodologia erabili direlako).
- Datuek dioten arren lurzoruaren okupazioa egonkortu dela, hori ez da nahikoa. Beharrezkoa da lurzoruaren erabileran efizientzia hobetzea, eta artifizializazio prozesuak are gehiago gelditzea.
- Aukera historikoa da lurzoruak berreskuratu eta aprobetxatzeko.
- Lurzoru hutsak aprobetxatzeko zailtasun nagusia da izapidetzetarako denbora asko behar dela.
- Irtenbideak aplikatzeko, erakundeek elkarren arteko aliantzak egin behar dituzte eta eraginpeko ente guztiek batera lan egin behar dute.

IDEIA GAKOAK

Lurraldea okupatzean ordena bat jarraitu behar da, lurzoruaren eragin mailaren arabera:

1. Lurzoru berriak okupatzea ekidin behar da.
2. Okupatuta dauden lurzoruak berrerabili.
3. Kalitate gutxiagoko lurzoruak okupatu.
4. Ekidin ezin daitekeen okupazioaren efektuak gutxitu eta konpentsatu.

Lurzorua berrerabiltzeko politika arrakastatsua izateko giltzarri posibleak:

- Datuak hobeto erabiltzea
- Eraginpeko politika guztiak lerrokatzea
- Finantzaketarako sistema espezifikoak
- Erabilerak optimizatzea
- Erakunde pribatuak inplikatzeko

6. mahaia. Baso kudeaketa jasangarria. Lurzoruen osasuna hobetzeko aukera

- *Baso kudeaketa jasangarria eta lurzoruak EAEn: BASONET sarea.* Alejandro Cantero Amiano (HAZI)
- *Karbonoa gordetzea Frantziako baso lurzoruetan.* Roland de Lary (CDPF, Baso Jabetzako Zentro Nazionala)
- *Baso sistemen orbel geruzan pilatutako karbonoa.* Ricardo Ruiz Peinado (DCIFOR-INIA)
- *Europako Batzordearen lurzoruen jarraipenerako zuzentarau proposamena* Guillermo Fernández Centeno (Baso Politikako eta Basamortutzearen aurkako Borrokako Zuzendariorde Nagusia, MITECO)
- *Espainiako baso lurzoruen karbono kopuruen mapa.* Rosa Calvo de Anta (Santiagoko Unibertsitatea)



LABURPENA

- Baso lurzoruaren materia organikoaren kopurua aldizka neurtzea kudeaketaren efikazia neurtzeko adierazle egokia izan daiteke.
- Aurkeztutako lanetan egindako kalkuluek (EAE, Espainia osoa, Frantzia) diote orekatuta dagoela biomasa bizian eta baso lurzoruaren gordetako karbonoa.
- Eskala txikiagoan, hildako biomasan eta baso lurzoruaren orbelean/litterrean gordetako karbonoa ere antzekoa izaten da.
- EAEn, Basonet sareak aldizkako neurketak egiten ditu basoetan, eta lurzoruaren kalitatea neurtzeko parametroak ditu baita ere.

IDEIA GAKOAK

- Baso kudeaketa zuzen batek kontuan izan behar du karbonoaren balantzea jasagarria izateko.
- Ezin da erreferentzia baliorik eman baso lurzoruaren materia organikoaren gutxieneko kopuruarentzako, askotariko faktoreen arabera aldatzen baitira, besteak beste landaretzari lotutako faktoreak, litologikoak, fisiografikoak eta klimatikoak.
- Baso jabeek eta kudeatzaileek baso lurzoruaren beharrezko babesa beren gain hartzen jarraitu behar dute baso ziurtagiri boluntarioekin, aplikatzeko den legeriaren eta etorkizuneko karbono merkatuen bitartez.

7. mahaia. Nola sustatu kutsatutako lurzoruak saneatzeko teknologien aplikazioa

- *Lurzoruen deskutsatzearen erakunde esparrua eta lankidetzaren publiko-pribatua.* Javier Agirre Orcajo (Eusko Jaurlaritza)
- *Flandria (Belgika). Politikak, estrategiak eta tresnak lurzoruen saneamendua sustatzeko eta teknologiak in situ eta on site erabiltzeko.* Johan Ceenaeme (OVAM)
- *Lurzoruen bankua: baliabide baliotsu baten zirkulartasuna lortzeko bidea.* Germán Monge (IDOM)
- *Nola sustatu lurzoruen deskutsatzean berritzea, erosketa publikoaren bitartez.* POSIDON proiektua. Mikel González Vara (Bilboko Udala)
- *Berreskuratutako lurzoruen funtzio aniztasuna helburu bideragarria edo faltsua?* Eduardo Alzola Echazarra (AFESA)



LABURPENA

- Hondeaketa materialak EAEko hondakinen lehentasunezko korranteetako bat dira.
- Gaur egun, lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lekuetako hondeaketa materialak balioztatze legerik eta irizpide orokorrik ez dagoenez, hondakin horietako asko eta asko zabortegietara eramaten dituzte.
- Tratamendu instalazioak eta teknologiak jartzeko ekimen posibleak hori ahalbidetzeko legezko esparru bat sortzearen menpe daude.
- Eusko Jaurlaritza lan aktiboa egiten ari da, eta dekretu bat idazten ari da hondeaketa materialak balioztatzea arautzeko.
- Europako herrialde/eskualde batzuk —hala nola Herbehereak eta Flandria— adibidetzat har daitezke arazo hori zuzen kudeatzeko.

IDEIA GAKOAK

- EAEn beharrezkoa da lege eta administrazio esparru bat sortzea potentzialki kutsatuta dauden kokapenetan hondeatutako material ez naturalak balioztatzeke.
- Lege eta administrazio mekanismoak behar dira gizartean tratamendu instalazioen aurka dagoen jarrera gainditzeko.
- Beste herrialde eta eskualde batzuetako adibidea aberasgarria izan daiteke euskal eredu definitzeko.
- Arrakastarako elementuetako bat lankidetzako publiko-pribatua litzateke.

8. mahaia. Udalean lurzorua babesteko praktika onak

- *Udaleko lurzoruen inbentarioa eta plangintza. Mari José Imaz (Urduñako Udala)*
- *Lurzoruaren kalitatea eta lurzorua babesteko praktika onak udalean. Jon Ruiz de Infante (CEA/Gasteizko Udala)*
- *Paper fabrika baten antzinako industria kokapenaren udal kudeaketa. Iratxe Arriola (Eako Udala)*
- *Jarduketak udal lurzorian eta klima aldaketa (Amets Jareguizar (Bakioko Udala)*
- *Astigarragako HAPO idaztea lurzorua babesteko irizpideekin. Raoul Servet (ARAUDI)*
- *Urizaharrako HAPO idaztea lurzorua babesteko irizpideekin. Unai Fernández de Mendia (EGITU)*
- *Suteak jasan dituzten basoetan lurzoruak berreskuratzea. Cristina Fernández (Galiziako Xunta)*
- *Praktika onak lurzoruaren iragazkortasuna eta biodibertsitatea hobetzeko Durango udalerrian. Aitor Larrucea eta Igor Zorrakin (Durangoko Udala)*
- *Hiri lurzoruak belardi emankor bihurtzea, nekazaritza eta abeltzaintza lan birsortzailearen bidez (Luis Carlos Delgado, Sestaoberri, Sestaoko Udala).*



LABURPENA

- **Urduñan** Lurzoruaren Osasunaren Behatokia martxan jartzen ari dira.
- **Gasteizen** hirigintza arauak berrikusteko prozesua aprobetxatzen ari dira beste atal bat gehitzeko (baldintzatzaile gainjarria), hala, nekazaritza eta elikadura estrategia garatu eta aldi berean karbono hustubideak garatzeko lurzoru urbanizaezinetan.
- **Ean** kutsatutako kokapen bat berreskuratu dute esfortzu ekonomikoarekin eta beste administrazioekin lan eginez.
- **Bakion** lan handia egiten ari dira herritarrek erabakiak hartzeko gobernantza ereduan. Ingurumen arloan esperimintatzeko prest daude toki zein autonomia erkidego mailan.
- **Astigarragako** asmoa da tresna batzuk ezartzea ingurumen aldagai guztietan lurzoru urbanizaezina babestu eta kontserbatzeko.
- Urizaharrak azterketa xehatu batean oinarritu du bere hirigintza arauen berrikuspena. Horri esker, lurzoru urbanizaezin bakoitzean jarduteko modurik onenak identifikatu ahal izan dira, modu egokian sailkatzeko eta zaintzeko.
- **Durangoko** arau subsidiarioak sare berdearen helburuak betetzeko erabiltzen ari dira: adibidez, lurzoru berriak ez erabiltzea eta berdeguneei koherentzia ematea.
- **Sestaon** sormena erabili zuten larreen karbono xurgaketa potentziala erabiltzeko, eta horrelako lekuak sortu zituzten degradatutako eta erabilerarik gabeko hiri espazioetan.

IDEIA GAKOAK

- Udalerriak animatzen ditugu lurzoruaren inbentarioak egitera: lurzoru babesteko tresna gakoa dira.
- Maila handiagoko araudi esparrua behar da, udalerriek lurzoru urbanizaezinen gaineko nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak karbono hustubideen sustapenarekin lotu ahal izateko.
- Beharrezkoa da hirigintza plangintzek nekazaritzako elikagaien estrategien ikuspegiak txertatzea.
- Finantza kaudimena eta finantzaketa bideak handitu behar dira, udalerrri txikiek lurzoru babesteko proiektuei ekin ahal izateko.
- Udal mailan lurzoru babesteko ekimena, hausnarketa eta lidergoa behar dira.
- Udalerriek beren gaitasuna erabili behar dute antolaketatik, azterketatik, plangintzatik eta ekintzatik jarduteko.

soiluzioak

2023

Euskadiko Lurzorua Babesteko Kongresua
Congreso de Protección del Suelo de Euskadi
Basque Country Soil Protection Congress

#SOILUZIOAK

